



- DEABRUAREN ABOKATUA -

“Nola utzi dezakegu politika abokatu eta ekonomialarien esku?”

Pedro Miguel Etxenike | Hau bai fisikoa!

Soluziorik ez duena ez bada problema,
erantzunik ez duena galdera ote da?

Sustrai Colina

Argazkia: Axier Lopez

Hara hurrengo Nobel sariduna!

Seigarren errenkarnazioan emango didate! Arraroa, ordea, ez da ni Nobela ez izatea, Asturiasko Printzearen sariduna izatea baizik. Ea zenbat euskaldunek irabazi duten hori!

Politikan ibilbidea egin duten zientzialariak bezain gutxiak.

Zientziaz eta teknologiaz hainbeste elikatzen den gizarte batean nola utzi dezakegu politika abokatu eta ekonomialarien esku? Zergatik ez sartu zientzialariak, filosofoak, bertsolariak? Erretzeari uzten badio, Andoni Egaña proposatzen dut kultur sailburutzarako.

Esadazu berriz zientifikoki formatutako gizartea libreagoa eta demokratikoagoa dela.

Zientziaren printzipio orokorre, jarrerei, eta eraginei buruz zeozertxo jakin behar genuke denek. Horregatik, probokatzeko, handinahi eta kultu-ustekoei beti galdetzen diet zer iritzi duten termodinamikaren bigarren printzipioaz.

Nork kontrolatzen du zientzia?

Inork ez, baina erabiltzeko medioak dauzkatenek erabiltzen dute. Zentzu horretan, XX. mendea zientzia eta teknologiaren garaipena izan da, baina gizateriaren elkartasunaren erabateko porrota.

Bonba atomikoa, ederra garaipena!

Boterera zoro bat iristeko aukerak ez direnez txikiak, normala da zientziaren dualitatearekin jendea beldurtzea. Baina, oro har,

zientziak ez du bizitza zoriontsuagoa egingo, bai humanoagoa ordea.

Zientziak mundu honi eman dion abiada humanoa da?!

Esponentzialki aldatu da mundua, eta horixe da dagoena. Telebistak 38 urte pasa zituen 50 milioi pertsonako merkatu batera iristen, Internetek lau, eta Facebook-ak bi. Hori bai, oraindik ere, ikertzaileen kuriositateak dakartzatza aurrerapenak.

Zertarako nahi dituzu aurrerapenak inork ez badaki zertan ari zareten?

Ados, gure ardura soziala da gure lana zabaltea, baina nork daki zer ikertzen ari den euskal filologo bat? Einsteinek zioen gisan, gauzak ahal bezain simple esplikatu behar dira, baina ez sinpleago.

Oso simple mintzatu zen Hiroshimakoa baino bi hilabete lehenago bonba atomikoa ez zela sekula lehertuko esan zuena...

IBMko lehendakariak, bere garaian, munduan bost ordenagailurentzako merkatua zegoela iragarri zuen; 1977an, Digital-eko buruak ez zuen motiborik ikusten gerora bakoitzak bere ordenagailu pertsonala izan zezan... Etorkizuna ez da lehen zena, beraz zientzian iragarpenik ez!

Seigarren errenkarnazioan Nobela nahi baduzu busti beharko duzu ba...

XXI. mendeko hitz gakoak ekologia eta neurozientzia izango dira. **n**